



Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación

Gradu Amaierako Lana egiteko eta defendatzeko araudia

(2024ko maiatzaren 20ko Fakultate Batzordean onartua)

(2025eko ekainaren 30eko Fakultate Batzordeak aldatua)

ARRAZOIEN AZALPENA

Irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuak III. kapituluaren, graduiko ikasketa ofizialei buruzkoan, haxe xedatzen du: "Ikasketa horietan, Gradu Amaierako Lana egin eta defendatu beharko da". Beste atal batean, berriz, honako hau gehitzen du: "Gradu Amaierako Lanak 6 eta 24 kreditu bitartean izango ditu, ikasketa-planaren bukaerako fasean egin beharko da eta tituluari lotutako gaitasunen ebaluazioa egitera bideratuta egon beharko du" (art. 14.6).

Bestalde, Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko errektoreordearen 2015eko martxoaren 26ko erabakiaren bidez onartutako Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean Gradu Amaierako Lana egin eta defendatzeari buruzko arautegiak (Gobernu Kontseiluak 2015eko martxoaren 12an onartuta eta 2012ko ekainaren 19ko EHAAn argitaratua) gradu amaierako lanen plangintzarako eta ebaluaziorako jardun homogeneoak bermatzeko irizpideak eta prozedurak xedatzen ditu. Era berean, 1.4 artikulua arabera, Fakultate edo Eskola bakoitzak bere Ikastegian eskaintzen diren Graduiko tituluetakoko bakoitzaren ezaugarrietara egokitu ahal izango du aipatutako araudi hori.

Esandakoaren kariaz, honako araudi honek Gradu Amaierako Lana egiteko eta aurkezteko aintzat hartuko diren argibideak jasotzen ditu, honako titulu hauek erdieste aldera: UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean eskaintzen diren Graduak.

1. ARTIKULUA. GRADU AMAIERAKO LANARENIZAERAZ

1. Gradu amaierako lana egiteko, ikasleek, banaka, proiektu, memoria edo azterlan original bat egin behar dute, zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean, eta bertan graduako ikasketa aldian jasotako prestakuntza gaiak eta lortu dituzten ahalmen, gaitasun eta trebetasunak bildu eta garatuko dira. GRALak egile bakar bat izan behar du: ikasle bakoitzak, bakarka, egin behar du bere GRALa eta ezin da beste inorekin elkarlanean egin. Lan autonomia eta akademikoa da.
2. GRALa titulazioan zehaztutako ezagutza, gaitasun eta trebetasunak aplikatzeari begira egingo da, baita datu garrantzitsuak bilatzeko, kudeatzeko, antolatze eta interpretatzeko trebatzeari begira ere, ikasleak gizarteari, zientziari, teknologiari edo etikari loturiko gai nabarmenei buruzko gogoeta egin eta iritzia eman dezan-normalean, bere ikasketa gaiei lotutakoei buruzkoa-, gogoeta eta iritzi horiek kritikoak, logikoak eta sortzaileak izanda.
3. Gradu Amaierako Lanak 12 ECTS kreditu ditu ikastegian eskainitako gradu guztietan (Zientzia Politikoa eta Kudeaketa Publikoa, Ikus-entzunezko Komunikazioa, Kazetaritza, Publizitatea eta Harreman Publikoak eta Soziologia).
4. Gradu Amaierako Lana Jabetza Intelektualeko Legeak babesten du. Hortaz, egin duenari dagokio jabetza intelektualaren arabera eskubideen titulartasuna, non eta ikasleak Gradu Amaierako Lana esleitzerakoan onartu zuen dokumentuan besterik zehaztu ez zuen; betiere, indarrean dagoen legediak aurreikusten dituen moduen eta baldintzen arabera.

1. ARTIKULUA bis GRADU AMAIERAKO LANA EGITEKO IRIZPIDEAK

1. - Gradu amaierako lanak garatu eta idazteko, ikaslea ondoko irizpideak betetzen ahaleginduko da eta horretako, lanaren zuzendariaren laguntza izango du:

a) UPV/EHUren erakunde irudia eta EHU tipografia erabiltzea, erakundearen irudi baitira.

b) Hizketa inklusiboa erabiltzea, eta generaren ikuspegia txertatzea gizakiekin zerikusia daukaten lanetan.

Egindako beste jarduera akademiko batzuetatik (praktikak, prestakuntza duala, etab.) eratorritako informazioa bigarren mailan erabiltzen duten lanen kasuan, pertsonen buruzko informazioa erabiliko da bakar-bakarrak akademikoki justifikatuta badago; eta, hala eginez gero, modu anonimoan erabiliko da, eta inplikaturako pertsonak ezingo direla identifikatuko berrmatuko da.

2. - Ikastegiei zainduko dute gradu amaierako lanak egiten direla UPV/EHUren i3 hezkuntza ereduren arabera. Ildo horretan, erakundeek (sektore publikoa, sektore pribatua, hirugarren sektorea eta GGKEak) sustatuko dute egitea benetako beharrei edo erronkei buruzko gradu amaierako lanak, gizarte erronkei eta jasangarritasunaren

dimentsio guztiei arreta berezia eskainiz. Era berean, 2030 EHU agendarekin lerrokatutako gradu amaierako lanak egitea bultzatuko dute, eta lan esparru horien berri emango dute irakasleen eta titulazioetako ikasleen artean.

3. - Unibertsitateko irakaskuntzen antolamendua eta haien kalitatea bermatzeko prozedura ezartzen dituen irailaren 28ko 822/2021 Dekretuak ezarritako ikasketa planak diseinatzeko printzipio gidariak garatuz, gradu amaierako lan guztietan jasoko da egindako lanari buruzko gogoeta bat, printzipio eta balio demokratikoei eta garapen jasangarrirako helburuei jarraituz egina. Gogoeta horrek aztertuko du GRALak balio horiekin eta JGHek osatzen duten lan esparruarekin duen lotura, eta/edo horiekiko ikuspegi kritikoak planteatzen dituzke.

Gogoetak arreta berezia jarri ahal izango die honako hauei:

Giza eskubideen eta oinarrizko eskubideen errespetua, baita balio demokratikoena ere.

Genero berdintasunaren eta tratu berdintasunaren errespetua, eta inor ez diskriminatzea, arrazoia edozein delarik ere: jaiotza, jatorri nazional edo etnikoa, erlijioa, sinesmen edo iritzia, adina, desgaitasuna, sexu orientazioa, genero identitatea edo genero adierazpena, sexu ezaugarriak, gaixotasuna, egoera sozioekonomikoa, edota beste edozein ezaugarri edo inguruabar pertsonal zein sozial.

Irisgarritasun unibertsalaren eta pertsona guztientzako diseinuaren printzipioen errespetua.

Jasangarritasuna eta aldaketa klimatikoa tratatzeko era.

Gogoetak 200 hitz izango ditu gutxienik, eta atal espezifiko bat izango da lan idatzian. 822/2021 EDn aipatzen diren erreferentziazko arauekin batera, 2030 EHUagenda erabili ahal izango da gure unibertsitatearen erreferentziazko ara u espezifiko gisa.

Gainera, ikasleak lanaren erreferentziazko GJHak adieraziko ditu, unibertsitateak edo ikastegiak antolatuko dituen sistemen bidez.

1. ARTIKULUA ter. GRADU AMAIERAKO LANA EGITEKO IRIZPIDEAK

1. - Gizakiekin, haien datuekin eta laginekin, animaliekin, edo agente biologikoekin edo genetikoki eraldatutako organismoekin ikerketa jardueraren bat egitea eskatzen duten lanen kasuan, tutoreak, lana mota horretakoa dela behin identifikatuta, ikasleari lagunduko dio baloratzen ondorio etikoaren garrantzia eta azalduko dio nola bete lan akademietarako indarrean dauden jarraibide espezifikoak, UPV/EHUren ikerketa eta irakaskuntzaren arloko Etika Batzordearen webgunean argitaratuak.

2. - Aipatutako kasu horietan, UPV/EHUren ikerketa eta irakaskuntzaren arloko Etika Batzordearen jarraibideetan aipatzen diren dokumentuak aurkeztu beharko ditu ikasleak, GRALa defendatzeko gainerako dokumentuekin batera. Alderdi hori arreta bereziz gainbegiratu beharko du tutoreak. Etika Zerbitzuak, bere aldetik, jarraibideak eta prozedurak etengabe hobetzen direla zainduko du, estandar etikoak betetzea errazteko eta betetze horren justifikazioa ahalik eta arinen egiteko.

3. - Egindako beste jarduera akademiko batzuetatik (praktikak, prestakuntza duala, etab.) eratorritako informazioa bigarren mailan erabiltzen duten lanen kasuan, 8. artikuluan xedatutakoa bete beharko da informazioa anonimoa izan dadin eta inplikaturako pertsonak ezingo direla identifikatuko bermatzeko, baina ez da aurkeztu beharko dokumentu gehiago. Hala ere, GRALean zehazki aipatu beharko da informazio iturria, bai eta zer egin den anonimotasuna bermatzeko ere. Alde horiek arreta bereziz gainbegiratu beharko ditu tutoreak.

4. - Ondorio etikoak dituzten lanen defentsan, epaimahaiak ebaluatuko du, baita ere, bete diren lan akademikoetarako indarrean dauden jarraibide etiko espezifikoak. Izan ere, ondorio etikoak ezagutzea eta jarraibideak betetzea zeharkako gaitasunak dira, ikerketa jarduerari ekiteko aukera ematen duten lanetan frogatu beharrekoak.

2. ARTIKULUA. GRADU AMAIERAKO LANAREN ZUZENDARIA

1. Gradu Amaierako Lanak, hain zuzen, Graduan edo Gradu Bikoitzean irakaskuntza duen sail bateko irakasleek edo Graduak eskaintzen dituen zentrorat atxikiak dauden irakasleek zuzenduko dituzte. Ibilbide DUALA egiten duten ikasleen kasuan, ikastetxeko tutoreak eta xede-erakundeko tutoreak zuzenduko dute lana.
2. Zuzendaria arduratuko da ikasle bakoitzari lanaren ezaugarriak azaltzeaz, lanaren garapenean hura orientatzeaz eta ezarritako helburuak beteko direla bermatzeaz, baita jarraipena egin eta ikasleari lana defendatu aurretik emango zaion txostena idazteaz ere. Xede-erakundetan Gradu Amaierako Lana egiten duten ibilbide DUALEKO ikasleen kasuan, erakundeko tutoreak aktiboki eta egunero parte hartuko du lan horren zuzendaritzan. Aurrerapen horiek EHU Portfolio plataformara eramango dituzte ikasleek, ikastetxeko tutoreak bilakaera ikus dezan. Kasu horretan, laneko zuzendarikide biek, alegia ikastetxeko tutoreak zein erakundeko tutoreak, txosten bana egingo dute ikaslearen eta lanaren bilakaeraren berri emateko. Txosten horiek epaimahaiari helaraziko zaizkio.
3. Zuzendariak laguntza emango dio ikasleari: Lanaren egitura zehazteko. Iturri egokiak aukeratzeko eta erreferentziak zuzen egiteko.

Gizakiekin, haien datuekin eta laginekin, animaliekin, edo agente biologikoekin edo genetikoki eraldatutako organismoekin ikerketa jardueraren bat egin behar den lanean kasuan, zuzendariak kasu hori identifikatzen eta akademikoki behar bezala justifikatzen lagunduko dio ikasleari. Halakoetan, aholkuak emateaz gain, azalduko dio nola bete behar diren lan akademikoetarako indarrean dauden jarraibide etiko espezifikoak

Egindako beste jarduera akademiko batzuetatik (praktikak, prestakuntza duala, etab.) eratorritako informazioa bigarren mailan erabiltzen duten lanetan kasuan, zuzendariak kasu hori identifikatzen eta akademikoki behar bezala justifikatzen lagunduko dio ikasleari, eta azalduko dio zer egin behar duen informazioa anonimoa izan dadin eta bermatzeko inplikaturako pertsonak ezingo direla identifikatu.

Lana idazteko eta epaimahaiaren aurrean egin beharreko aurkezpena prestatzeko.

4. Gradu Amaierako Lana pertsona batek baino gehiagok zuzendu dezake. Era berean, GRALaren zuzendarikide izan ahalko dira unibertsitatearekin lotura daukaten doktoreak eta doktorego aurreko kontratua daukatenak, baldin eta kontratuak horretarako aukera ematen badu, baldin eta zuzendarikide bat badago graduan eskolak ematen dituen sail batekoa, edo gradua irakasten den ikastegiari atxikia.
5. Ikasleak UPV/EHU ez den bestelako instituzio edo erakunderen batean gauzatzen badu praktika-hitzarmenen esparruko Gradu Amaierako Lanaren zati bat edo osoa, unibertsitatez kanpoko langileek ere zuzendarikidetzan jardun ahal izango dute Gradu Amaierako Lanean. Nolanahi ere, ezinbestekoa izango da araudi honetako 2.1 artikuluan aipatutako baldintza guztiak betetzen dituen zuzendari bat egotea.
6. Ikasleak Erasmus Programaren edo bestelako mugikortasun-programaren baten babesean gauzatzen badu Gradu Amaierako Lana, harrera-unibertsitateak izendatutako bertako zuzendarikide batek lagundu ahal izango du zuzendaritza-lanean; betiere, honako araudi honetako 2.1 artikuluan aipatutako baldintza guztiak betetzen dituen zuzendari bat izanez gero.
7. Behin Gradu Amaierako Lana izendatzeko prozedura amaitutakoan, zuzendariak behin betiko edo iraupen luzeko baja hartuko balu, Gradu Amaierako Lanaren Batzordeak, irakaslea atxikita dagoen sailarekin koordinazioan eta alde zuzenetik ikaslearekin bilduta, beste zuzendari bat izendatuko du, gehienez ere 10 eguneko epean.

3. ARTIKULUA. GRADU AMAIERAKO LANEN ESKAINTZA

1. Ikastegiko sailak eta sailetako atalak dira parte hartzen duten gradu bakoitzerako Gradu Amaierako Lanak egiteko gaiak aurkezteaz arduratuko direnak. Ibilbide dualeko ikasleentzat GRALaren eskaintza prestakuntza DUALEKO Batzorde Mistoan egingo da. Proposamen horretan kontuan hartuko dira xede-erakunde jakin bakoitzean egin beharreko lanaren espezifikotasuna eta Gradu Amaierako Lanaren gaitasunen garapenaren egokitasuna. Betiere, EHU/UPVko araudiaren 8. artikulua hartuko da kontuan, GRAL-a egiteari eta defendatzeari buruzkoa.
2. GRALa unibertsitatetik kanpoko erakunde batekin egin ahal izango da. Horretarako ezinbestekoa izango da lankidetzak hitzarmena sinatzea.
3. - Lankidetzak hitzarmen horiek arautegi honetan zehaztutakoari jarraikiz egingo dira, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren Funtzionamendurako Arautegiko 25.f artikuluen babesean.

Lankidetza hitzarmena errazteko, Gradu Batzordeak hitzarmen ereduak onartuko ditu. Hitzarmena sinatuko dute erakunde lankideko kide batek eta ikastegiko zuzendaritza taldeko kide batek. Batak zein besteak hitzarmena sinatzeko gaitasun nahiko izan behar du.

4. - GRALa beste erakunde batean eginez gero, aldez aurretik zehaztu egin beharko da konfidentzialtasuna dela-eta mugarik dagoen emaitzaren bat aurkezteko edo argitaratzeko edo lana jendaurrean defendatzeko. GRALa egitean erabiliko bada, modu justifikatuan eta arrazoi akademikoengatik, erakundean sortu den pertsonen buruzko informazioa, modu anonimoan erabiliko da eta bermatuta inplikaturako pertsonak ezingo direla identifikatu; eta lan idatzian azalduko da zeintzuk neurri hartu diren hori ziurtatzeko.
5. Ikasturte bakoitzeko irakaskuntza-eskaintza osatzeko aldian, ikastegiko zuzendaritzak sail edo atal bakoitzak eskaini beharreko Gradu Amaierako Lan-kopurua aurreikusi beharko du, irakaskuntza-talde baimen-irizpideen arabera aurreikusitako ikasle-kopuruan oinarrituta. Aurreikusitako Gradu Amaierako Lan-kopurua, beraz, sailen eta atalen artean banatuko da, tituluko nahitaezko guztizko kreditu-kopurutik gradu bakoitzean eskaintzen den nahitaezko kreditu-kopuruaren arabera.

Edonola ere, sail edo atal bakoitzari gehienez ere gradu amaierako 6 lan esleituko zaizkio, ikastegira atxikitako arduraldi osoko irakasle bakoitzeko, ikasturte bakoitzean. Graduan eta Gradu Bikotzetan eskolak ematen dituzten sail guztiek eskaini eta zuzendu beharko dituzte GRALak, ikastegiaren GRALari buruzko arautegian ezarritakoarekin bat etorritik.

6. Era berean, ikasle guztientzat nahikoa Gradu Amaierako Lan aukeratzeko ahalmena bermatze aldera, Gradu Amaierako Lanen eskaintza handitu egin ahal izango da ikasturte bakoitzean, hautazkoen ehunekoari dagokionean; betiere, sail edo atal guztientzat, neurri berean.
7. Egindako eskaintzak, dena den, Gradu Amaierako Lanen eskaera ase beharko du, bi hizkuntza ofizialetan. Modu osagarrian, sailek edo atalek hizkuntza ez-ofizialetan ere eskaini ahal izango dituzten Gradu Amaierako Lanak. Baina horiek ez dira zenbatuko 3.5 artikuluan jasotako Gradu Amaierako Lanaren banaketan.
8. Fakultateko Batzarrak edo Batzorde Iraunkorrak, arestian aipaturako irizpideak aintzat hartuta, urtero onartu beharko du ikastegiko sailek edo atalek egin beharreko Gradu Amaierako Lanen eskaintza.
9. Sailek, atalek eta formakuntza DUALeko Batzorde Mistoak Gradu Amaierako Lanaren Batzordera bidaliko dituzte, urtero, maiatzaren 30a baino lehen, esleituta daukaten Gradu Amaierako Lanaren eskaintzarako gaien proposamenak. Eta bertan jaso beharko dituzte,

hain zuzen, zuzendarien zerrenda, hizkuntzak, hizkuntza bakoitzerako ebaluazio-epaimahaikideen proposamena eta ikasleak gauzatu behar duen lanaren deskribapen txiki bat. Oro har, Gradu Amaierako Lanak irakasleei esleitzean, lehentasuna emango zaie UPV/EHUko arduraldi akademikorako planean jasotako irakaskuntza-jardueragatik kredituak esleitzeko irizpideei.

10. Gradu Amaierako Lanaren Batzordeak, beraz, sailek edo atalek egindako eta formakuntza dualeko ibilbideetan garatutako eskaintzari jarraipena egingo diote, eta beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte Gradu Amaierako Lanaren eskaintzak gradu bakoitzerako definitutako gaitasun espezifikokoak lortzea bermatuko duela ziurtatzeko.

4. ARTIKULUA. IZENA EMATEA ETA GAIA ETA ZUZENDARIA ESLEITZEA

1. Gradu Amaierako Lana esleitua izateko ikasleak gaindituta izan beharko ditu gutxienez graduako 150 kreditu edo gradu bakoitzeko 120 kreditu.
2. Esleipena egiteko eskaeran, ikasleak adierazi beharko du, lehentasunaren arabera, zein gairi buruz egin nahi duen Gradu Amaierako Lana, kontuan hartuta sailek edo atalek titulazioan eskaintzen dituztenak.
3. Eskaera egiteko epea amaitu ostean, eta gehienez ere 15 eguneko epean, ikasleari gai bat eta zuzendari bat esleitzeko zaizkio, bere espedientearen batez besteko notaren eta eskaeran adierazi dituen lehentasunen arabera.
4. Lehen esleipena egin eta ondorengo 15 egunetakoren batean, eskaera egiteko epe berezia irekiko da, aurreko atalean xedatutako irizpideen arabera gaia eta zuzendaria esleitu ezin izan zaizkien ikasleentzat. Bigarren esleipen honetan, lehentasunaren eta batez besteko notaren arabera, lehenengo aukeran esleitu gabe geratu diren Gradu Amaierako Lanen artean egin ahal izango dute aukeraketaikasleek. Izena emateko bigarren aukera honetan parte hartu ahal izango dute, halaber, ebazpena eman eta 7 eguneko epean, esleitu zaien Gradu Amaierako Lanari formalki uko egin dioten ikasleek. Nolanahi ere, aurretiaz Gradu Amaierako Lana esleitu gabe zeukatenek izango dute lehentasuna eskaera egiteko bigarren epean. Uko egindako Gradu Amaierako Lanak hutsik geratuko dira, ondorio guztietarako; eta ezingo dira berriz esleitu.

5. Gradu Amaierako Lanaren eta zuzendariaren esleipenak bi ikasturteko baliagarritasuna izango du. Epe hori amaitu ostean, esleipena berritu ahal izango da; Gradu Amaierako Lanaren Batzordeari aldeztu aurretik hala eskatuta, eta zuzendariaren oniritziarekin. Hala egin ezean, ikasleak beste eskera bat egin beharko du esleipenerako.

5. ARTIKULUA. MATRIKULA ETA DEIALDIAK

1. Gradu Amaierako Lanaren matrikula Unibertsitateak ikasturte bakoitzean ezartzen duen matrikula-epe orokorraren barnean edo kasuan kasuko ikasturtean zehar egingo da, ikastegiaren kudeaketa egutegiaren arabera. Matrikula egingo da betiere hurrengo ikasturtearen hasiera ofizialaren aurretik eta UPV/EHUren oinarritzko egutegiak zehaztutakoaren arabera. Horretarako, ikasleak beharrezko prezio publikoak ordainduko ditu, esleituta dituen kredituen arabera.
2. Gradu Amaierako Lanaren matrikula egiteko ikasleak matrikulatuta izan beharko ditu ikasketak plana amaitzeko geratzen zaizkion irakasgai guztiak.
3. Matrikulak bi deialdi ofizialetarako eskubidea emango du ikasturte bakoitzean. Ezarritako deialdietan lana defendatu ez duten edo gaiturik ez duten ikasleek berriro egin beharko dute matrikula hurrengo ikasturtean.
4. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak bi deialdi ezarriko ditu Gradu Amaierako Lana defendatzeko; bata ekainean eta bestea irailean. Salbuespen moduan, karrera amaierako aparteko deialdira aurkeztu ahal izango da ikaslea (otsaila/martxoa), Graduako Ikasketen Gestiorako Arautegian adierazitakoari jarriki, baldin eta eskatutako baldintzak betetzen baditu.
5. Gradu Amaierako Lana egin eta defendatuko da esleitutako hizkuntzan.
6. Inola ere ezingo da egin Gradu Amaierako Lan baten defentsa, gaia eta zuzendaria ez badira esleitu horretarako egon den epearen barruan.

6. ARTIKULUA. EBALUAZIO-EPAIMAHAIK

1. Gradu Amaierako Lanaren ebaluazio-epaimahaiak ikasturte bakoitzaren hasieran onartuko ditu Ikastegiko Batzarrak edo Batzorde Iraunkorrak, sailek hala proposatuta. Horretarako, matrikula eginda duten ikasleek kopuruari eta Gradu Amaierako Lanaren gaiari erreparatuko zaie. Bestalde, ebaluazio-epaimahaiak bi hizkuntza ofizialetan osatuko direla bermatuko da eta hirugarren hizkuntza batean, hala eskaini diren GRAL-entzako.

2. Epaimahai bakoitza hiru kidek, eta gutxienez, ordezeko batek osatuko dute, eta guztiak Gradua eskaintzen duen Ikastegiko irakasleak izango dira.
3. Gradu Amaierako Lanaren zuzendariak ezingo du parte hartu berari ebaluatuko duen epaimahaian.
4. Epaimahai bakoitzean lehendakari eta idazkari bana egongo dira. Bestelako aurreikuspenik egon ezean, irakaskuntza-kategoriaren eta antzintasunaren irizpideak erabiliko dira lehendakaria eta idazkaria hautatzeko; horiek kargu horien arabera arituko dira jarduera guztietan.

7. ARTIKULUA. GRADU AMAIERAKO LANADEFENDATZEA

1. Ikasleak ADDI gordailuan utziko du lana, defentsaren eguna baino astebete lehenago gutxienez, ikastegiaren kudeaketa egutegiaren arabera. Ikasleak Gradu Amaierako Lanaren lau kopia aurkeztu beharko ditu ikastegiko idazkaritzan, paperean eta/edo euskarri informatikoan, lanaren nolakotasunak bestelako bitartekoren bat eskatzen duenean. Halakoetan, idazkariak lanaren kopia bat helarazi beharko die ebaluazio-epaimahaia osatzen duten kide guztiei.
2. Ikasleak aurrez aurre eta ekitaldi publikoan defendatu beharko du Gradu Amaierako Lana. Hala ere, ikastegiek ezarri ahal izango dute zein kasutan baimentzen den bideokonferentzia bidezko defentsa, betiere, aparteko kasuetan eta behar bezala justifikatutako egoeretan. Hori guztia, bai eta defentsa egiteko baldintzak ere, ikastegiak ezarri beharko ditu araudi hau garatzeko arau osagarrian, eranskinean jasotako jarraibideetan xedatutakoari jarraituz.
3. Tituluaren egiaztapeneko memorian ezarritakoaren arabera, graduan eskolak emateko erabili diren hizkuntzetako edozeinetan egin, aurkeztu eta defendatu ahal izango da lana, baldin eta hizkuntza horiek menperatzen dituzten epaimahaiak osatu ahal badira. Edonola ere, Gradu Amaierako Lana Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egiteko eta defendatzeko eskubidea bermatuko da.
4. Ikastegiko zuzendaritzak finkatuko du Gradu Amaierako Lanak defendatzeko egutegia, kudeaketa-egutegiak horretarako finkatutako epearen barnean.
5. Ikasle bakoitzak bere Gradu Amaierako Lanaren helburuak, metodologia, edukia eta ondorioak aurkezteko gehieneko denbora izango du. Eta, ondoren, epaimahaiko kideek egin eta eskatu ahal izango dizkieten galdera, azalpen, iruzkin eta iradokizunei erantzun die. Gradu Amaierako Lanaren defentsak, gehienez ere, 20 minutuko iraupena izango du.

8. ARTIKULUA. EBALUAZIOA ETA KALIFIKAZIOA

1. Ikasleak bere aurkezpena bukatutakoan eta zuzendariaren txostena ikusitakoan, ikasleari eman beharreko kalifikazioa eztabaidatuko du epaimahaiak, Gradu Amaierako Lanaren irakaskuntza-gidan argitaratutako ebaluazio-irizpideen arabera, eta tituluko egiaztatze-memorian ezarritakoarekin bat etorrira.
2. Ikasleak lana gainditzeko ez badu, lana hobetzeko gomendioak biltzen dituen txostena helaraziko dio epaimahaiak, ebaluazioa berriro egiteko. Zuzendariari ere txostenaren kopia bat bidaliko zaio.
3. Kalifikazioa 0tik 10era bitarteko zenbakizko eskalan emango du epaimahaiak, dezimal bakarrarekin, eta kalifikazio kualitatiboa ere adieraziko da:

– Aurkeztu gabe (AG)
0 – 4,9: Gutxiegi (G)
5,0 – 6,9: Nahiko (N)
7,0 – 8,9: Oso ongi (OO)
9,0 – 10: Bikain (B)

Deialdi batean defentsa-eskubideari uko eginez gero, “aurkeztu gabe” adieraziko da.

Ikastegiko Gradu Amaierako Lanaren Batzordeak “Ohorezko matrikula” eman ahal izango die, epaimahaiak hala proposatzen duenean eta defentsa egiteko aldi bakoitza behin amaituta, lanen defentsan kalifikazio onenak lortu dituzten ikasleen %5i, gehienez, baldin eta, beharrezko ikusten badu, lortu duten kalifikazioa 9,0 edo altuagoa bada.

4. Gradu Amaierako Lana ebaluatzeko akta, bestalde, Unibertsitateko Kudeaketa Araudian xedatutakoaren arabera itxi beharko da. Hala, epaimahaiko idazkariaren erantzukizuna izango da berori behar bezala betetzea eta administrazio-zerbitzuei aurkeztea, Ikastegiak xedatutako prozedurari jarraituta. Era berean, Ikastegiko zuzendaritzari dagokio honako artikulua honetan xedatutakoa betetzen dela zaintzea.
5. Gradu amaierako lanen azken kalifikazioen berrikuspenak edo erreklamazioak unibertsitateko Ebaluazio Arautegian aurreikusitakoari jarraituz egingo dira; dena den, kasu honetan epaimahai bat dagoenez, ebaluazioaren lehen berrikuspena ikastegiko Erreklamazio Batzordeak egingo du, eta ebazpen horren

kontra gorako errekurtsua aurkeztu ahalko zaio unibertsitateko errektoreari unibertsitateko Errekurtsoen, Irizpenen eta Sinplifikazioaren arloko Batzorde Administrazioari, eta batzorde horrek ebatziko du unibertsitateko errektorearen eskumenak eskuordetuta.

Gradu Amaierako Lanak erreklamatzeko edo berrikusteko prozedura bat etorriko da UPV/EHUko Gradu Titulazio Ofizialetako Ikasleen Ebaluaziorako Arautegiko 22 a) artikuluan xedatutakoarekin. Kalifikazioaren erreklamazioa ikastegiko erreklamazio batzordeak ebatziko du, batzordearen osaera izanik: gutxien dela, batzorde buru bat, idazkari bat eta hirugarren irakasle bat, eta Ikastegiko Ikasleen kontseiluburua edo hark eskuordetutako ikasle bat. Ezin izango dira batzordeko kide izan aurreko ebaluazio prozesuan parte hartu duten irakasleak

6. Nolanahi ere, Gradu Amaierako Lanaren kalifikazioak urriaren 31 baino lehen agertu beharko du matrikulatutako ikaslearen espedientean.

9. ARTIKULUA. GRADU AMAIERAKO LANAREN BATZORDEA

1. Gradu Amaierako Lanaren Batzordea, Fakultateko Batzarrak izendatutakoa, honako hauek osatuko dute: Dekanoak edo haren ordezkari pertsonak, titulu bakoitzeko koordinatzaileak, administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari batek eta ikasleen ordezkari batek.
2. Batzordearen egitekoen artean, bestalde, hauek ditugu:
 - a. Gradu titulu bakoitzeko Gradu Amaierako Lanaren ikasketen gidaliburua osatzeko lana koordinatzea.
 - b. Gradu Amaierako Lanari jarraipena egitea, eta horien eskaintza gradu bakoitzerako definitutako gaitasun espezifikoak lortzeko baliagarria izan dadin zaintzea.
 - c. Ikasleei zein irakasleei Gradu Amaierako Lanarekin lotutako helburuei, gaitasunei, jardueri eta ebaluazioari buruzko informazioa ematea.
 - d. Gradu Amaierako Lana edo zuzendaria esleitzean egiten diren alegazioak ebatzea.
 - e. Gradu Amaierako Lana gauzatzean hauteman eta beste organoren bati esleituta ez dauden gorabehera akademikoetarako irtenbideak proposatzea.

- f. “Ohorezko matrikula” ematea, epaimahaiak hala proposatzen duenean, defentsa egiteko aldi bakoitza behin amaituta.
- g. Ikastegiko Batzordeak bere ahalen arabera egokituko dizkion gainerako egiteko guztiak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da 2013ko uztailaren 10eko gradu amaierako lana egin eta defendatzeari buruzko aurreko arautegia.

AZKEN XEDAPENA.- Indarrean sartzea

Arautegi hau 2024/25 ikasturtean sartuko da indarrean.